

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Laugarren urtea — Pamplona, Mayo 1969. — Maiatza. - Iruña. - 39 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

EUSKERA ZERTAKO?



Ez ontaz itzik esan herri txikitako 'jakintsu' aundieri. Bere-na dute bakarrik gogoan: soldado denbora, ezin moldatua ta lotsa. Baño ez dute esaten etzirela eskolara joaten, kafi bilan ibiltzen zirela; ez erdera ikasten. Nundik dute orai inglesaren ametsa? Esne epel-epelean amak eman balie...

Gizon ez ikasia bezain ausartarik (atrebiturik) ez omen da munduan. Eta zerbait ba da. Arro putza izaten da eta dena ba dakiela uste. Esaiozu milaka ta milaka urtez gizonak ikas duen jakinduria berekin duela gure izkuntza zaharrak. Barre egingo dizu. Zenbatez hobe telebistako gezurrak!

Begira dezagun orai mundu zabalera. European jarriak dira gaur gure begiak: lenbailen aiekin hartu emanetan sartu nahia, aiek bezala lan egin, an bezain merke saldu... Eta Europako herri aurreratuenak bi izkuntzako herriak direla ez gera konturatzen? Dirudienez an ez du inork bigarren izkuntza bazartu.

Hemen ere gure atzetik heldu diren haurrak bi edo hiru izkuntza ikasi beharra izango dute, gurasoak egin zutena egiten ez ba dute eskolan. Erdera, euskera eta beste bat. Madrilloge be-riak.

Esan garbi Euskal-herriko sasi maisu guzieren, *euskera zertako*:

Besterik ez ba da, mundu zabalera aurrerabidean ez motz gelditzeko. Europa aundi bati bere izkuntza zaharrenaren berri eman eta poztutzeko. Guk euskera galtzen dugun egunean ez du ezer irabaziko gizadiak; eta galtzekorik aundiena gure-tako izango da.

Gañera, gure aita amen deia da.


J. M. S.

Asko dira gure artean *euskera zertako*, esaten dutenak. Eta beste askok berriz, "hobe ginuke ingles jakitea..." Bai naski; iritzi hortakoa naiz ni. Ez ingles bakarrik; erruso, japonese eta beste bost, sei, zazpi. Ikas-teak ez du kalterik. Baño, hori esaten duten batzuk amaren bular onez okatutako haurrak ez ote dute iduri! Txikitari hartu den esneak, ezer gosta gabeko amaren titiak, burua ez baño bihotza behar luke berotu. Aunditu ondoan ikasiak ikasi, hura barneago behar ginuke odolean senditu.

Euskera zertako! Gutxi al da

ama onaren seme gerala agertzeko? Zonbaitzuk ez lukete merezi.

Duela hiru lau bat urte Espainia guziko haurren artean egindako idazketa, *Concurso Nacional de Redacción* delakoan, gauza polita gertatu zen. Erderazko lanetan katalan haur bat gelditu zen txapeldun; eta euskalduna bigarren. Zer kalte egin zion beste izkuntzak erderari? Madrileko egunkari (periodiku) batek auxe zion biramonean: "Espainiako haur guzieren gutxienez bi izkuntza txikitatik erakusteko ordua noiz etorriko ote da?".



DEZAKEGUN NEGURRIAN

Inor ezdugu gure oinkada edo pausu berean ibilarazten ahal. Bere urratsetan utzi behar bakoitza. Inork ez dezake, bada, unen ta aren anken ezberdin ori berdindu.

Bere eruz kirrikildu danari, edo bere zango-zurrumak nahi duten aldera iokatzen utzi dituanari, maingueria garaitzen eta zurrumak zuzentzen laguntzea gauz ederra litzaiokie artarakoa danari, non ta sendatu beharra ezduen negurriko ibileratik ateratzera behartzen.

Anken luzerak eta ibiltzeko zailtasun edo erraztasunak ematen dioten negurrian ibil bedi bakoitza.

Soldaugo egunetan, ta batezere asmentako zallenetan, naiko neke eramaten dituzte zenbait mutil gaztek, bertzeen negurrian ibili nahi ta ezin orrekien.

Izpiritu edo arimek ere, gorputzek bezala, beren ibilera edo gisa daukate: laungoikoak bakoitzari bere negurrian emanekoa.

Laungoikoak eman dion eran edo gisan izpirituzko argi ori dabilkienak, oinkada zuzenak ematen ditu: ongi dabil, laungoikoak iarrri duen bide ortan dezaken guzia egiñaz. Behar baño gutiagorik ezdu ematen: dezaken baño geiagorik etzaio eskatzen ahal.

Bere eruz, oitura txarrez, zitalkeriz, alferkeriz, izpiritu aldetik maingu dana maingueri ortatik sendatzen laguntzea, gauz ederra da: baño, eri ori bere izpirituko albidearen negurrietatik ateratzera bulkatu ta behartu gabe; laungoikoak eman dizkio-ta negurri oiek.

Ezin badugu inor gure onkadaren negurri berean ibiltzera behartzen ahal; gure zangoen negurriko onetakoak iauntztera, aisa guti-go oraindik.

Izpirituaren gauzetan, berdin. Izpiritu bakoitzak, bere negurrian ibili behar du; ez bertzeen kasketaldienean, laungoikoak eman dion ta beretzak bakarrik egoki zaion argi berezi ori. Izpiritu bakoitzak iarrri beza bizitzako bidean, laungoikoak emaneko argia, beti ta ahal bezein gartsu, berekin eramanez.

Danok, alkar bidean laguntzeko gaude, bai. Ortarako gabiltz munduan: onean alkar laguntzeko: bakoitzak dezakegun pixkan alkarri bizitzako bidean argitzea. Baña au, gure usteari bertzeak lotu gabe, «uste» ori guretzat gauzik «ziurrena» bazaigu ere. (Sinismenekoetan, ziurtasuna: laungoikoari ta Elizari esker).

Izkuntz-bidean ere, —ta ontara noa ain zuzen—, ala behar genuke danok. Ez batek bere izkerara edo bere solas gisara bertze guziak ekarri naiaz, ez. Baizik eta bakoitzak bere izkeraren onakin bertzeak izkuntz-bidean ta bizi-bidean ere argitzea, aberastuz. Ta bata bertzearen argiaz ahal bezein ongi baliatuz. Ta gure izkeran sendatu beharrezkoak ditugun maingueriak danon artean polliki-polliki sendatuz.

Alkarrekin kasaillan ta matrakan ibiltzeak, on baño kalte geiago dakar gutartera.

Izkuntz-bidean danak batasunera bat-batean bortxatzea, gaurkoan ezin erdietsitako amets bat da naski. Nere iduriz, alo!

Bakoitzaren ioerak, erro luzeak ta zaharrak ditu gu bakoitz oken barrenetan.


Illak goiko pakean utziz, bizien artean bat edo bertze aipatzeko, Abeletxe ta Basarri ezin berdineratuak ditugu.

Xalbador ta Mattin, kaiol bereko ezin. Zeruko Argian idazle, lenbiziko biak: erriz erri bertsolari dabilzanak, bertze biak.

Lau izen okin dabilzan izpirituak, ta emen aipatzen ez ditudan izenekin idatziz edo kantatuz izkuntz-lanean ari diran gañerakoak, bakoitza bere ioerakin, bere oiturekin, bere iduripenekin; naiz danak euskaldun; ta au, ori, ura ta bertzeak euskeraren edergarri ta pollit-tasun baten edo bien edo baita aunitzen iabe.

Ioera, oitura, iduripen ezberdiñak izan arren, alkarrekin konpon-tzera saiatu behar izpirituak; alkarri arikan ariz, alkarren kopetak zulatuta, danok ilik gelditu nahi ezbadugu seirik.

IBARRONDO



BILINGÜISMO

Sucedió el año pasado en una escuela de Navarra. Entró en la clase un niño de cuatro años que en casa hablaba normalmente el euskera. La maestra, interina ella, no le entendía y exclama:

—Qué pena, niño, que no podamos entendernos!

El pequeño trata de pasar al terreno de su maestra y, sin academicismo pero con eficacia, le hace comprender su mensaje, en castellano. Luego añade, seguro de sí mismo:

—Nik esan dezutana, esan zuk orai eskuaraz...

—¿Qué es lo que dice? —pregunta a los otros niños la maestra.

—Quiere que le diga Vd. en vasco lo que él le ha dicho en castellano.

—¡Ahora sí que me ha fastidiado bien!

Conflictos de este género están a la orden del día entre nosotros. Y nos preguntamos: ¿merece la pena el bilingüismo? ¿Qué ventajas puede aportar al niño frente a estos serios inconvenientes?


BASE CIENTÍFICA

Vamos a atenemos a una base rigurosamente científica. El Prof. Paul A. Kolers ha iniciado una profunda investigación sobre el fenómeno mental del bilingüismo. La realiza un equipo de expertos del «Laboratorio de Investigación Electrónica del Instituto Massachusetts de Tecnología». Colabora también el «Centro de Estudios sobre el Conocimiento», de la Universidad de Harvard. He tomado los datos de la revista médica española «Medicina Rural» (Dic. 1968).

Lo que llamó la atención del Prof. Kolers fue la rapidez con que pasa de uno a otro, el que domina dos o más idiomas. También observó que «el cambio es total» —son palabras suyas—; «no se mezclan términos de ambos idiomas».

NO ESTORBA

La primera conclusión, elemental si se quiere, es que el conocimiento de dos o más idiomas no supone ningún entorpecimiento mutuo entre ellos. He aquí sus palabras:



La figura representa, utilizando un símil a base de tanques, dos hipótesis sobre la forma en que una persona bilingüe maneja la información. Una hipótesis (a la izquierda) consiste en que toda la información es almacenada centralmente, o en un tanque central, y que el individuo tiene acceso a ella en igual forma con los dos idiomas, que están representados por varias salidas. La otra (a la derecha) consiste en que la información es almacenada en forma asociada con el idioma, o en tanques separados. Los experimentos realizados por el autor indicaron que la disposición real de una persona bilingüe combina parte de ambas hipótesis.

«Un lector experto en dos idiomas puede, al leer en silencio, comprender correctamente un párrafo sin importar cuántas palabras de cada idioma se hayan mezclado en él. Al parecer, no tiene que realizar ningún cambio de código lingüístico cuando lee los dos párrafos».

«Otra consecuencia más es que la información repetida en diferentes idiomas (diferentes sistemas de símbolos) es tan bien retenida como la información repetida en un solo idioma».

«Puntualizando un poco más, supongamos que tenemos que dar a un estudiante dos lecciones de geografía. Si el estudiante conoce dos idiomas, retendrá tanta geografía con una lección en cada idioma, como con dos lecciones en uno de ellos».

SUPONE ENRIQUECIMIENTO

Evidentemente, las personas que hablan dos idiomas han logrado dominar dos series de símbolos. Esto supone un enriquecimiento.

Pregunté en cierta ocasión a una niña del S., bien aclimatada entre nosotros, el significado de las palabras «codiciar - bienes - ajenos». No supo aclararme ninguna de ellas. Trece años de niña normal, tirando a espabilada. Obtuve respuesta inmediata a cada una de las tres por parte de niños bilingües, de diez, ocho y nueve años respectivamente. El saberlo de dos formas resulta para ellos un constante libro de consulta.

Pero no se trata sólo de enriquecimiento intelectual. La encuesta precisa otro extremo más sutil, cuando dice: «muchas personas que dominan dos idiomas declaran que piensan de forma diferentes y responden con emociones distintas a la misma experiencia en los dos idiomas». Es natural. Que lo digan los enfermos montañeses que inesperadamente se encuentran con un Doctor que les habla en euskera.

DESARROLLA LA INTELIGENCIA

«La enseñanza —dice el informe— exige la adquisición de infor-

mación y la utilización de la capacidad mental». Son dos aspectos distintos. Información equivale a nueva percepción, noticia, vocabulario. Luego viene el orden y la utilización de esos informes, por parte de cada individuo.

Ahora bien, los niños de un mismo ambiente social y similar educación vienen a tener en los pueblos idéntica información. Conocen el lenguaje familiar, captan el aire de la calle y se influyen mutuamente en los grupos que frecuentan. Está por otra parte la educación escolar que todos reciben.

Tratándose, por ej., de un pueblo donde no se han desarraigado los símbolos vascos, aún cuando algunos niños desconozcan este idioma, todos ellos van adquiriendo la misma información global del medio en que viven. Es normal que paralelamente a los símbolos «padre», «madre», «polvo», «cabra» etc., registren sus equivalentes vascos «aita», «ama», «hautsa», «auntza», etc. Es a partir de este punto donde empiezan a delimitarse los campos, ya que el niño bilingüe selecciona los términos para adaptarse al idioma que en cada momento utiliza; en tanto que el otro los acepta en principio con indiferencia. Le saldrán expresiones como estas, con entera naturalidad:

—¡Oye! ¿Has visto nuestra cabra hauts colore?

El aita ha ido al monte por orbel... (cosa que no hará nunca el que domina las dos lenguas).

A este aspecto se refiere el informe científico norteamericano, cuando dice: «Los idiomas, como acabo de demostrar, pueden adiestrar la mente en cuanto a la forma en que ordena y utiliza la información». Ese ordenamiento y utilización de informes viene a ser una gimnasia mental que desarrolla la capacidad del individuo.

El hecho que voy a relatar es rigurosamente histórico. Dos muchachos de familia vasca, pero que no hablaban la lengua de sus padres, cortaban ramas junto al río. Una joven vasca se interesó por aquel material, pero no recordaba la palabra española «mimbre». ¿Qué vais a hacer con esas ramas? —les dijo ella—.

—¿Con esos «zumes»? Ya los puedes llevar si quieres. —fue la respuesta de los chicos—. Precisamente lo que no quiso decir ella.

No puedo menos de recordar, para terminar, lo que hace ya más de cien años intuyó el gran poeta y pensador alemán, Goethe:

—Qué recomendaría para aprender bien el alemán— fue la pregunta formulada al maestro.

—Aprender otro idioma.

Ojalá que este tesoro del bilingüismo deje de ser muy pronto patrimonio de minorías entre nosotros. Máxime, cuando puede conseguirse desde niño, sin ningún esfuerzo.

J. M. SATRUSTEGI



ELIZAREN
ITZA

BATIKANOKO II ELIZ BATZAR NAGUSIA

GIZON GUZTIEN BERDINTASUNA

Gizarte, politika bat eta ere religio arazoetan guk ez bezala uste edo jokaten dutenak ere, begirune eta maitasunez artu bear ditugu, eta zenbatenak maitasun eta gizonkiago aien iritziak ezagutzen ditugun, ainbat errezagoko elkar-itzketa moldatuko dugu beraiekin.

Maitasun eta gizonkitasun orrek ezgaitu, noski, axolgabe biurtu bear egi eta onaren buruz. Egizko maitasunak Kristoren jarraitzaileei, biziago eragiten die egi osasungarria gizon orori azaltzera. Ongi berehten ahal ditugu aldioro makurra eta gizon makurtua, au beti gizon da religio gai okerretan naastuta dagonean ere. Barrengo goraberak Jainkoak bakarrik aztertzen ditu, arrek epaitzen ditu, iñoren barrengo errurik ezgenezake guk neurritu.

Makurkeriak barkatzeko erakusten digu Kristok, eta etsai dakizkigunak maitatzeko, agindu berri bat emanez: «Entzun dezute esanda dagola; Urkoa maite ta etsaia gorroto ezazu. Nik berriz dasaizuet: Zuen etsaiak maite itzazute; gorroto zaituztenei ongi egin ezute, ta ezetsi ta iraintzen zaituztenentzat otoi egizute. Bere eguzkia on eta gaiztoen gañera atera ta euria on eta gaiztoaren gañera bialtzen dun Aita Goikoaren seme izan zaitzeten» (Mt. 43-45).

Gizon guztien berdintasun oin-oineko gero ta geiago aitortu bear da. Arrazoidun animaz ornitu ta sortuak Jainkoaren antzera, izate bera ta asiera berbera dugu-ta. Kristok ber-erosita denok zerurako dei ta jomuga ber-bera daukagu gañera denok.

Soin indarrez ezgerala berdiñak jakifia da, adimen azkarragoa ta oitura zuzenagoak batek bestean aldean, alaere nortasunaren esku-bide orarikiton berexkuntzerik ezditete on artu. Bat zuri edo beltza dalakoz, gizon edo emakume, aberats edo beartsu, itzkuntza eta religio ezberdiñak ditualakoz, Jainkoaren aurak gera denok, senide beraz. Gezurra dirudi nortasunaren eskubideak alde guzitan aitortuak eta babestuak ez egotea oraindik, gaurko egunetan; ala zenbait lekutan, emakumeak nai dun gizonarekin ezkontzeko biderik ezdu, edo nai luken bizimodua aukeratzeko, edo eziera ta jakintza gaietan gizakiek berdin sarrera izateko.

ESKVALERRIKO LEIOA

AITA VILLASANTE'REN LIBURU BERRIA: «JESUKRISTO»

Arantzazuko frantziskotarra den Aita Luis Villasantek beste euskal liburu bat argitaratu du: «JESUKRISTO» izenez.

Aita Villasante oso ezaguna da euskal idazlari artean eta bere euskera errikoia da, errax entenditzen duena. Liburu honen izenak aditzera ematen duen bezelaxe, liburu honi dagokion gaia yakiñik: Jesukristo, badakigu garrantzi handikoa izanen dela liburu hau, bi aldetatik ikusita, euskaldunentzako. Batetik Errelijio Katolikoaren Fedea obeago ezagunertzeko eta bestetik euskeraz euskaldunek obekiago irakurtzeko.

Liburu honen gaia da, Jesukristori dagokiona. Liburu hontan Ebangelioak, Ebangelioak ezagutzeko jakinbide eta erak, eta hauek ematen dizkiguten Kristoren personalidade, eta irudia azaltzen dira gaurko eguneri doazkioten modutan agertu eta ikusiak. Honek nai du esan liburu hau gaurkotasunez, oraingotasunez beztitu eta bete da dagoa.

Lan ona egin du Aita Villasantek Errelijio Katolikoaren gai hauek guziak euskeraz prestatzean, euskal fededunentzat eta baita ere euskeraren onerako.

«JESUKRISTO» liburu berri hau salgai dago gure liburu-dendetan. Euskaldunak erosi.

IRU URTEZ «DIARIO DE NAVARRA» EGUNKARIAN «EUSKAL ORRIA» AGERTZEN

Pasatu berri den Aprillaren 21 egunean Iruñeko «Diario de Navarra» egunerokoaren «Euskal Orria»-k iru urte bete zituen.

«Euskal Orria» honek «Napar Izkuntzaren Orria» izena dauka eta sortu zanetik honera irutan ogei ta emeretzi orrialde azaldu dira.

Gure napar euskal errietan eta Iruñe'ko etxe askotan atseginez irakurtzen da. Orri hontan lan egiten duten jaun guziei gure zorionak.

«EGAN», EUSKAL ALDIZKARIA

Gure anaia den Gipuzkoa'ko Diputazioarean «Julio de Urkijo» deritzan Batasunak urtean behin edo bitan «EGAN» izena duen euskal aldizkari bat baditu amazapi urte eta geiago argiratzen duela.

Azken egun hauetan 1968 urteko numerua jaso dugu.

Agerkari honek euskera erotik goratzen du. Dena euskeraz idatzia. Bertan euskal idazlari famatu guziek parte artzen dute. Azkeneko numeroak ehun ta berrogei ta amalau orrialde ditu.

Argerari honen gaiak goimaillakoak dira denak kulturari, yakiteari dagokionak, zeren «EGAN» agerkari hau euskaldun jakinientzako eskeindu eta zuzendua baita. Argi esateko hemen jartzen ditugu aldizkari hontan agertzen diran gai batzuk: Literatura, Arte, Historia, Teatroa... eta denetara beste gañerako Zientziari buruzko gaiak agertzen dira.

Irukote batek prestatzen du «EGAN»: Errenteria'ko seme zintzo eta izkuntzalari yakintsu den Luis Mitxelena jaun famatua, Donostiko lege-gizon aipatu den Antonio Arrue eta Naparroko seme eta sendagille prestu den Aingeru Irigarai jaune osatzen dute irukote zuzendaria.


Euskaldun ikasiek badakite nun duten euskeraz iskribitutako goimailla-ko agerkari bat.

Eska ezazute zuzenbide, adreza hauetara: SEMINARIO «JULIO DE URQUIJO». Palacio de la Diputacion de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN.

IKUSLE

Iruñeko "Euskalerrriaren Adiskideak" Elkartasunaren "Lenengo Udaberriaren Lore-yokuak"

Euskerazko loreak irabazi zituzten beste bi poesiak argitaratzen ditugu Iruñeko «Euskalerrriaren Adiskideak» Batasunaren baimenarekin. Bata «Venegas eta Figueroa» Lorea, «GAIZTOA» lema duena, «EGILLAREN EGARRI» izenezkoa, Egillea: Manuel Elias Odriozola, Azpeitiko. Bestea «ETCHAUN» Lorea lemagabekoa, Aita Frantzisko Uribarren Bilboako egina, «ZORION BILLA» izendatua.



"VENEGAS ETA FIGUEROA" LOREA

EGILLEAREN EGARRI

Izar ta itxaso,
zugaitz ta ibaiak,
abere, arrai ta
mendiak...
Ikusitzean arriturik
ditut nere begiak.

Bere garaian
illetargia,
egunez berriz
eguzkia...
Zein ote dute oiek
beren nagusia?

Illuntze osgarbi...
Izar guztiak
beren bidean
diz-diz beteak...
Indar aundia du
sortu ditunak.

Eguna joan ta
eguna etorri...
Ez alda ori
arrigarri?
Orregatik naiz ni
Egillearen egarri.

Itxaso aundia
asarreturik,
tximistak dirala
goitik...
Oien aurka inola ezin
jaso gizonak bururik.

Batzutan euri,
bestetan aize...
Arrigarria
orixe!
Billatu nairik sustraia
gizona beti da goze.

Gure aldean
aundia dago,
gizona bañan
gorago...
Jaiotzetikan Egille jauna
ni arriturikan nago!

Aul ta kaxkar
ikusten gera
begiraturik
or gora...
Aitorturikan Jaun zerukoa
Egillea Zu zera!

Zugaitz, sasi ta
berdin loretoak,
beren garaian dituzte
frutuak...
Nork ori egin
ez bada Egille aundiak?

Batzutan mendi,
bestetan zelai,
errekak eta
bai ibai
Egilleari agur! diote
pozez beterik ta alai.

Lurrean sartu
azi txikiak
ta usteldu orduko
aundiak...
Zure laguntzaz bizi gera bai
munduko gizon guztiak.

Txori txiki bat
eskuan artuz
beatzak
ikutuz,
jartzen zait biotza
Zuregana begiratur...
Ain polita da
txori txikia,
begi-bixi ta
argia...
Egilleak bakarrik dio
eman berari bizia.

Abere aundi
eta txikiak,
pixti, zugaitz
ta loreak...
Aunditasunez josia dauka
mundu guztia Egilleak!

Egin dituzun
gauzak ikusiz
ni naiz gose
biziz...
Dan-danak osa dituzu
apainki eta neurriz!

Zugaitz ta loreak
apaintzen dira
urreratzean
udara,
Zure usaia zabalduaz
gizon guztion artera...

Begiratzetan det
ikusit nairik
zeru aldera
mundutik...

Bañan ikusi ezin
naiz ez izan lañotik!

Barkatu neri
Egille maite!...
Egiña bai dizut
kalte!...

Zure indarra ikusi arren
nai izan det aparte!

Morro bat nazu
Egille jauna,
ta ez gañera
onena...
Naiz da izan mundu onetan
Zuk emana dan-dana!

Gauza guztiak
sortu dituzu
ta bukatzen
dituzu...
Gizaldi eta gizaldietan
danen iturri zera Zu!!

Lema: GAIZTOA
MANUEL ELIAS ODRIUZOLA

"ETCHAUN" LOREA

ZORION-BILLA

Zer dala-ta gabiltz emen da or
ikubilka aixeari?
Zergaitik atsegin gaurko egunez
gorrotoa gizonari?
Beti esango ete dautsagu
ezezkoa bakeari?
Edo gaur ta biar gezur egin
maitasun dei bigunari?

Emen gudak, or burruka zarrak;
nunnai ikusiezinaik.
Andrak negarrez, aurrak txillioz
or gorrotoen egiñak!
Baltz, larru, zuri, guztiok bardin
gara errubakoen miñak.
Onela ete ebilzan gizonak
gaurkoz bezela lenian?

Gizona indartsu, itargia ur,
ez dago beste ametserik!
Emen da or, edonon, jan-edanak
eta ainbat ilten goserik.
Espetxeak gañezka, beteta,
ez dago askatasunerik.
Bide au edo ori artu bear
ete dago aukeraterik?

Gau baltza, negu otza, zer dardara,
ixillun bide zorrotza!
Negarra ta miña baztarretan
nun dogu gizonok lotza?
Argi bako bidea, nora joan?
Barruan leia lez otza!
Gazte-zar barrukan, alkar-joka,
arrizkoa ete da biotza?

Estu, ona ta orra, gora-bera,
txalupea itxasoan.
Landa zabaletan zenbat gizon
odola gorputz osoan!
Aldemenean gorpuk luze
burrakaren baltz beroan.
Gazte-zar, aberatz-txiro, danok
geldi egin eriotz ondoan.

Ikubilka, bide billa, larri
edonon gaurko gazteak.
Zarrak makur, estu, zapalduta
aurrera euren urteak.
Bizitza latza, ez dago argirik
biotzak zauriz beteak.
Nekea, karrasia, negarra,
itxita zorion-ateak.

Ezin egonak, bizar luzeak
nesken prakak, zorgin dantzak;
gaztedia bide-billa, gogor,
eraginda griña baltzak.
Aittu-eza, ixil egon bearra,
gaur edonon une latzak.
Alkar-iltea, alkar-jotea,
gaur eguneko akatzak.

Itxaso beti orroaka
tximistak diz-diz mendian.
Burdin-otsa, durunda gogorra
gure biotzaren erdian,
Asmo zorrotzak, guda bildurrak,
biotz-ikarak, geldian.
Onela ete ebilzan gizonak
gaurkoz bezela lenian?

Dardara ta karrasia nunnai
Titi-umetxoan negarrak!
Naiz da goserik, naiz da bilozik,
alperrezko deadarrak.
Gizonaren zakona, xamurra,
guztiz jota dago arrak.
Nok atera, nok ebagi, itto,
gorroto zikiñen narrak?

Aurrera ta aurrera, norantza?
Egin gizonak geldia!
Begira zer atsegin, poza dan
lozez beterik mendia.
Apaindu bizitza, jantzi barriz,
egin maitasun sendia.
Gorroto illun eta baltzari
kendu arin bere aldia.

Uda barria ur dago, bertan.
Ekin txaloka berari.
Poztu, alaitu, ekin goraka,
dei egin maitasunari.
Il gorrotoa, ekarri bakea,
zoriona gizonari.
Barkatu, egin lagun, maitatu
gizon batak besteari.

Egaziak pozik abeslari
eguzkia argi garbia.
Zoriona, bakea, ixilla
orra or udabarria.
Txio-mio, alai, abeslari
adarretan bai txoria,
batak besteari alkar-deika
arturik abesti arla.

Bizi barri bat sortu bearra

INAZIO LARRAMENDI, Naparroa'ko bertsolari ospetsua

Ez da ukatzekoa euskera zaar eta paregabea izan dela Napartarren izkuntza jatorra. Zoritxarrez, azkeneko mendeetan erdera emeki-eme-ki egoaldetik iparraldera txokoratzen ari da gure euskera maitea eta oraingo egunetan iparraldeko zati menditsuan bakarrik bizia gelditzen da. Urte azken aietan Naparroa'ko Aldundiak, napartar zintzoen laguntzarekin lan merezigarria egiten du, batez ere gazteen artean, euskera bizkortzeko. Ongi badaki gazteen eskuetan euskeraren geroa datzala. Lerro aukeratuak izkribatzen dituen Praga'ko euskaltzaleak, Euskalerrria ta euskera biotzaren erditik maite dituenak, estimu aunditan dauka Naparroa'ko Aldundiaren inportantzi aundiko lan au ta orko Aldundiari ta lan ontan parte artzen duten guzietan go-raintziak eta eskerririk onenak bialtzen dizkie. Ziur nago gure Jaungoiko onak egipen au bedeinkatzen duela. Guziok ongi badakigu euskera fedearen oinarriak sendoena dala.

Naparroa'ko euskaldungoaren euslari nagusienak bertsolariak dira. Dakigunez, napartarren artean izan dira aldi guzietan bertso eder-rak bota dituztenak. Gaur, 1960'garren urtean il zen Inazio Larramendi izeneko bertsolari ospetsuaren omenez zerbaiz izkiriari nai det. Nik ez det Larramendi jauna aurpegiz ezagutu, baiñan berarekin eskutitzeko artu-emanetan nengoan. Uste det, neu naizela pertsona bakarra, berak euskeraz egindako eskutitzak daukana. 1955'garren urtetik aurrera Praga'tik Bera'ra eta Bera'tik Praga'ra eskutitz eta txartel ugariak joan ziran. Larramendi etzan gizon ikasia, ziur naiz berarentzat lan naikoa izan zala eskutitz bat egitea ta neretzat aski zail irakurtzea... Ala ere, euskera garbi ta jorian egindako bere eskutitz ederrak pozik irakurri nituen. Adimen onako gizona zan, euskaldun jatorrak izaten duten bezela, eta bere lerroetatik Euskalerrri ta euskerarenganako maitasun sakona nabaitzen nuen. Irakurleak berak on-irritzi dezakete nere adiskide zanaren euskaltzaletasun sutua, bere eskutitzaren zati bat irakurtzean. Ona emen zer izkiriaren duen: «Badira uste duten euskaldun zozoak euskera sarri akabatuko dela; ori da gauza bat iñork eztaikena; nik dakidana da gaur ludian bizi diren denak ilda gero ere biziko dela euskera, eta gero zer gertatuko den iñork eztaiki. Beñipein ni bizi naizen artean biziko da ta ilda gero ere nere aitarekin zeruan, ezbeitzekien erderaz, euskeraz itzezin gogo dut... Ludi ontan modak agitz agudo aldatzen dire eta euskera galtzeko moda au ere galdu ditek...».

Berarengandik artu nuen azkeneko txartela 1960'gko Otsailaren 11'gkoa izan da. Nere adiskide maitea, 86 urte dituen ta bere azkeneko eguna urbiltzen zaiola senditzen dena, onela izkiriaren dit: «Eldu zaizkit 86 urte eta ikusten dut urbil azken eguna eta orrek eramaten dit nere buru guzia... Ikasten baduzu ni beste bitzikira joan naizela, mesedez, otoitz bat nere alde».

Lerro oietatik ikusten degu gure adiskide zana G. B. etzan euskaltzale sutua bakarrik, baiñan fededun zintzoa ere. Ziur nago Jaungoikoak eraman duela bere arima zerura, an bere aitarekin euskeraz egiteko.

NORBERTO TAUER

Bera'tar agitz maite degun Inaki Larramendi'ren esku-titzari, erantzun apal eta maitekor bero-bero bat

Igeska urtiak uste gabian
aunitz igaro zaizkigu.
Larogei ta bat bete dituzu,
nik irurogei eta iru.

Nere erriya, BERA'ko erriyaz
(antxen jaiotz nintzalako)
urruti andik biziyagatik,
eznaiz inoiz ni aztuko.

Jaungoikuak ala nai izan eta
gazterik atera nintzan.
Nere kabiya emen jarri nun
Kantabri itsasuaren ertzan.

Urte zerrenda ORIO erriyan
(ogeita amaseitaraño),
pake osuan kunplitu ditut,
ta ez naiz damu egundaño.

Jaungoikua zuzen beti ibiltzen
zaigu bere bidetikan.
¿Zeñek errango luke orduan
nere ertera andikan?

Askotan ditut gogoz oldosten
nere erriko berriyak.
erriko besta, Egurri eguna,
ta baita BESTA-BERRIYAK.

Egun batian EGAN letuta
arriturik ikusi nun,
EL BIDASOAK euskeraz lerruk
nola idazten zizkigun.

Gauz ona zala ta on egarriz

Bertsu hauek Berako seme den Joakin Aldabek izkribitu zituen bere erri bereko zen Inazio Larramendi euskal idazlari eta poeta ospetsuari zuzenduak. Ekarri ditugu gure orrialdetara Praga'ko Norbert Tahuer irakasle famatuak egindako euskal idazlan honekin batean Inazio Larramendi zenaren oroimenez.

(1) Irun'go BASURKO, LARRAMENDI eta ALDAVE, alegiya.

bai gizonaren premiña.
Edo beti bardin itto ezinda
biotzeko sakon-miña?
Munduaren baltza, otza, illuna,
bai da ber-berak egiña.
Maitasunak bakarrik kendu lei
bere barruko samiña.

Itxi bide orreik, ekin barriro
bakez ta alai bizitzeko.
Alkar berba egin, alkar maitatu
bake-bidea egiteko.
Goxea asetu, billoza jantzi
zorion-poza ekarteko.
Ekin lanean, aurrera egin
bizitza barrizatzeko.

Zer zakon eta eder, ori poza

gazteak maitez begira!
Aurrak amaren altsoan, nasa
zoriontsu agiri dira.
Gudarik ez, senarrak etxean,
orra or bestelako jira.
Bakea, zoriona, maitasuna,
kantuz biotzeko lira.

Egin arin, beingoan, gizonak
biziera guztiz barria.
Gorrotoa atara susterretik
eta ez bakarrik zatia.
Joan da negua, badator uda,
sekulako eguzkia!
Maitasuna ta bakea dira
zorionaren argia.

AITA FRANTZISKO URIBARREN

IKASI, MIKASI...

SEGA APOSTUA, ¿NOLA IRABAZI?

- ¿Ola, Juan Migel!
- Beorrei galdeat ithea nator, jaune.
- Ba'dakizu, ortarako emen naukazula beti.
- Lengoan izoarrisiko sesioat izandu giñun launen artin.
- ¿Zetaz?
- Gue apezma maiz xamar erristan ai baita, jai-igandetan bat eo beste baratzetan ikusten delako, gizon gazte ta jakintsu diruin batek, esan zigun Konzilioak eskubidetu dula lan piskoat ithea igandetaz ere.
- ¿Nondik atera du gizon orrek esakeri ori?
- Nunbait aithu izango zun. Esan diot beorrei, nee ustez, gizon ona dirula.
- Ba'diteke, baño, badakizu, askok Konzilioai ta Aite Santuai esan ezazten dietela konbeni zaiena. Nik emen dauzkiat Batikanoko Bigarren Konzilioan Dokumentu guztiak, eta ez det gizon orrek dionik ikusten. Baita nextatz gazte batzuek —eta emakume ez ain gazteak, ere—, esaten dute orain elizera joan daitekela mantanilla gabe. ¿Nondik atera dute eskubide ori? Norbaiteri aditu diot, Aite Santuak esan zuela bein, Erromako San Pedro Elizen sartzea ez debekatzeko, naiz emakumeon bat mantanille gabe ba'dator ere... ¿Ez dakite oiek Erromako San Pedro'ren elize, elizen gañera, monumentu famatua dela, ta ura ikustera juaten direla mundu guztiko katolikoak eta erlijiorik ez dutenak ere...?
- Ordun, beorren ustez, Konziliotik onea, ¿Elizaren legeak ez dire aldatu jai igandetaz?
- Ez, ta... bai.
- Ba da, ba, zerbait...
- Eliz Ama Santaren legeak ez dire aldatu. Munduko bizi-modua da aldatu dena, ta asko ere.
- Esan beza, zetan.
- Begira, Juan Migel. Len, geinak lan egiten zuten nekazalgoan, zurgintzan, argintzan, ikazketan, taller txikietan, eta. Oiek denak, igandetaz errax utzi zezaketen bere lana. Bakar bakarrik eskubidetuak zeuden lan egiteko, ostalariak, ogikiñek, bizargiñek eta. Orain, lau gizonetik bat biñepin, lan egin bear du jai egunetan ere, kliniketan, ospitaletan, telefonotan, es-taziotan, trenetan, autobusetan, fabrika batzuetan eta, prezisoz direlako. Ara zergatik Eliz Ama Santak piske bat legundu duan irugarren mandamentuko legea. Batzuek jostatzeko, bestiak lan egin bear dute...
- Ori arrazoiezkoa da.
- Baita, ere, aste guztian bere ofizioan loturik dagoanak, lan piske bat egin dezake bere gauzetan, igandetaz ere. Baño, ¿Ba'dakizu zer egiten duten askok? Larunbate atsaldetako guztian tabernan egon, eta igande goizetan, lan... ¿Ez duzu ikusiko iñor igande atsaldetan oitako lanetan! ¿Ainbeste premi ba'lute...!
- Egi da, beorrek diona. Kaso geinetan, ez da beartasuna, baizik aitzakia.
- Nik esaten dietet igandetaz lan egiten dutenai: «zure eran dauden gizon onak —jeta, ba'dire, Jainkoai eskerrak!—, ¿nola konpontzen dire jai-igandeak gordetzeko? ¿Edo, juaten zera baratzara, autoa garbitzera, sukaldiak txuritzera... meza uztoko ta goizetan jostaketarik ez dagoalako?».
- Orain, esan beza zergatik irugarren mandamentuak debekatzen dizigun nekezko lanak.
- Jainkoa ooretutzeko, ta gure gorputzarentzat ere bear-bearrezkoa delako.
- Aste egunetaz, ere, errezatu daiteke...
- Ez guztien artean, elizen egiten dan bezala. Gañera, ¿noiz ikustaldi bat egin aideai, lagunai, gaixoi...? Uste dezagun, zuk zazpi mille pezetako dituzula sakelan. Nik, estualdi aundian nagoalako, eskatzen dizut zerbait. Zuk ematen dizkidazu zazpi millepeztakotik, sei. Nik, eskerrak eman bearran, kentzen dizut zazpigarren millapeztakoa. ¿Ongi irudituko zaizuke?
- Barka beza, baño, ori lotsabakeri aundia izango litzeke.
- ¿Ori, bera, egiten du, bada, igandetaz —Jainkoak, Bera ooretzeko gorde zuen egunean—, beartasun gabe, lan egiten duenak!
- Len esan dit beorrek, igandetaz atseden artzea bear-bearrezkoa dela gorputzentzat ere.
- Ta, egi da. Geiegi denboran, gelditu gabe dabiltzen makinak, berotzen dire. Abereak, ere, egunen batez atseden artzen ez badute, ondatzen dire bear baño lenago.
- Oaiñ, eunin zortzi ordu bakarrik lan iithen baita, ba da denboa atsegin artzeko...
- Ez da naiko. Ta, kontu batekin, ikusiko dezu obeki.
- Kontu beza, jaune, kontu eo ejemplo oi.
- Bi gizonak, bi segalari, apostu ikusgarri bat egin zuten. Biek egin bear zuten lan berdiña, egun guztirako lana. Baño, kondizio auekin: batek sega pikatu zezaken, baita zorrotzu ere, nai ainbeste aldiz; gosaldutako ta bazkaldu ere, bai. Bestiak, astiro edo azkar, gelditu gabe egin bear zuen bere lana.
- ¿Nok irabazi zun?
- ¿Nok irabazi bear zuen! Lendabizikoak, atsaldetako bostetarako, bukatu zuen bere lana, belar bat tente utzi gabe, ta geiegiko neke gabe. Bestiak, berriz, sega ailtzur zarra baño maketsagoa zuelarik, ¡ler eginda!, an zegoan atsaldetako zazpiretan...
- Agirin dago, ba, jai-igandetako atseden ongi jarrita dagoala.
- ¿JAINKOA OORATZEKO, ANIMETAZ OROITZEKO, TA POZ ETA ALAI-TASUNEAN BIZITZEKO!

A. ASTIZ ARREGI

BERTSOLARI ESKOLATUAK

Bertsolariai buruzko lan bat irakurri degu, azken aurreko «PRINCIPE DE VIANA»n; «H.» batek izenpetua.

Bertsolari eskolatuak dirala-ta, nere izena aipatzen du, beste batzuen artean; eta, itxuraz, gora-naiez aipatu ere. Bañan dion guztia ez bait da egi, ortaz mintza nai nuke nik gaur Okerrak zuzendu bearrez.

Onela dio «H.» jaunak: «Bertsolari-gaietan goi-goiko mallan arkitzen diran euskaldun jakintsu danak, ala nola D. Manuel Lecuona... aita Onaandia... Amuritz... Zeleta... etab... etab... denak bereizten dituzte bertsolariak bi mailletan: **eskolatuak** eta **ez-jakiñak**. Bakarra naiz oraindaiño, nik uste, bereixtasun edo dibisio ori onartzen ez detana». Ori dio «H.» jaunak.

Nik ez dakit, or dijoazen jaun oiek nola egiten duten bereixtasun edo dibisio ori. Nik beintzat, ez det iñoz bereixtasun ortan aipatu bertsolari «ez-jakiñak». Nik «eskolatuak» bai, aipatu izan ditut, eta geinez, alderantziat, «eskolatu-gabeak»; ez, ordea, «ez-jakiñak». Ez



bait da berdin. Izan diteke jakinduri, eskolan ibilli gabe. Bertsolaritzan batik-bat, ezertan bada-ta.

Bañan —eta au da nere esan— bearrekorik garrantzitsuena— eskola-kontu ori, bertsolariai buruz, ez bait da nik sortua; Xepelar'ek bai-zik. Nik ori gogorazi bai, gogorazi nuen bein, Basarri'ren «Bertso sortari» ipiñi nion Prologo-Sarreran, Xepelar'ek donostiarrikin Errenteria'n izandako inka-minka aipatuaz. Inka-minka artan kantatu bait zuan Xepelar'ek arako «Iparragirre'rena» deritzan bertso ezagun ura:

Iparragirre abilla dela askori diyot aditzen;
ESKOLA ONA eta musika...
ori orrekin serbitzen.

Eta nere Sarrera artan, gogoan det, «eskolatuen» artean —Xepelar'ek sartzen duan Iparragirre'z gain— sartzen nuala nik Otaño bat, eta baita, bear bada, gure Basarri bera ede. Bañan «ez-jakiñak» aipatu, nik ez det sekulan egin, bertsolarietaz mintzatzerakoan; geinez ere «eskolatu-gabeak» aipatu ditut: «eskolatuak» eta «eskolatu-gabeak».

Jakingarri bat orain, aurrera baño leen: emen Xepelar'ek aipatzen duan «eskola», ez dala, «H.» jaunak nai lukean bezela, «bertsolari-eskola»: ez orduan ez geroztik ere izan ez dan bertsolari-eskola alegia... norbaitek, parrez-parrez, esan izan zuan arren: «Gure kolegiyuak sagardotegiak». Xepelar'ek aipatzen zuan «eskola» ura, txikitako erriko eskola zan Xepelar'ek Errenteria'n baño Iparragirre'k Urretxua'n, Zerrain'en, Gazteitz'en eta Madrid'en ohea izandakoa, alegia. Izan ere, gure bertsolaririk jatorrenetan bertan —ala nola Xepelar bera— asko ta asko izan ziran eskolan iñoz oiñik sartu gabeak; edota sartu arren, irakurtzen oxta-oxta ikasi, bañan ge-



ro Mezako liburuaz gañera beren bizian beste gauza aundirik irakurri gabeak. Oiek ziran Xepelar'entzat «eskolatu-gabeak». Bera bezela; eta Iparragirre EZ bezela.

Beste zerbait: «H.» jaunak, zirteta-zart, onela dio: «Neretzat bakarrik daude BERTSOLARIAK: batzuk ONAK, beste batzuk TXARRAGUAK, eta beste zonbeit ERDIPURDIKOAK». Baita guretzat ere, «H.» jauna: berdin-berdin, batzuek onak, besteak txarrak, eta besteak erdizkakoak.

Bañan orrek ez bait du galerazten batzuek (ONENAK ere) txikitat eskolan ibilli gabeak izana, eta beste batzuek (TXARRAK bear bada) eskolan ibilliak. Bi kontu bait dira oiek, elkarrekin zer ikusirik ez dutenak. Eta ortikan dator, ain xuxen, Xepelar'ek egun artan egindako bereixtasuna. Xepelar'i, bere donostiarrekiko inka-minka artan, oso zertorkion bereixtasun ori; bera baño txarragoa zan Iparragirre, «eskolatua» zala esatea, alegia. Batak ez bait du galerazten bestea.


Beste zerbait geiago oraindik: «H.» jaunak, ez dakit nundik gu, eskolatuen «aldeko» egiten gaituala... eta, ikusten denez, eskolatu-gabeen kontrako: Ots! Etxaun'en, eta Uzta-pide'ren eta Xalbador'en kontrako... Ori ere entzun bear genduan!... «H.» jauna: orain arteko bertsolaritza guztian neretzako bertsolaririk onenak —salbo-ta kupeleko sagardo bezela— eskola-gabeen artekoak izan dira: Xepelar batik-bat, eta ari berean gero Pello-Errota eta Txirrita, eta beste aldean Etxaun —beste ari batean ezik— eta gaur Matxin eta Xalbador...

Beste zertxo bat, bukatzeko: asko arritu gaituala, «H.» jaunak Iparragirre eskolatu-gabeen artean sartzeak, Xepelar'ek ain argi ta garbi Iparragirre eskolatuen artean sartzen zualarik:

Eskola ona eta musika...
Ori orrekin serbitzen.


Orixen zan, gaur esan bear zuana.

LEKUONA ZAARRAK



PILOTARIAK

Erran bezala yoa den Apirilaren 13'an ari izanak dira Eibar'ko «Astelena» deitutako pilota plazan, Retegi nafartarra eta Tapia gipuzkoarra.



Esku-huska ta buruzburuko partida hau España'ko pilota Txapelketakoa zen eta borokaldi hunek errekiste aundia izan du.

Egun hortan «Astelena» leporaño bete yendez, nafartarrak eta gipuzkoarrak naste, denak esku-zartaka bakotzak bere sainduari otoi. Partidaren asmentan trabesak erasundarraren alde zauden 200-90 ri uyu egiten zutela, gero partidaren bizkitartean apostuak izan zituzten beren gora-berak. Seigarren tantoraño Retegi aintzinean, gero adosteak izan zituzten seigarrenean, zazpigarrenean, amabigarrenean, amaseigarrenean, eta amazpigarrenean eta azkenik Retegi irabaztala 22-18. Partida bizkitartean Retegi'k aintzinaldia hartzen zuen eta Tapia beti bere gibeletik, bortz adoste egin zituen azkoitiarrak bainan beñere ez zuen agintea hartu. Partidak ordu bat iraun du eta Retegi'k saketik lau tanto eta Tapia'k iru egin zituzten. Partida ederra izan omen da. Igaz partida hau bera yokatu zuten eta orduan Retegi'k tanto soil batean utzi zuen Tapia, bainan aurten azkoitiarrak atakaldi aundia eman dio erasundarrari, oraingoan napparrak lau tantoz irabazi du bainan larri ibili ta ondoan.

Laster ikusiko ditugu orai Retegi ta Azkarate buruz-buru eta gudukaldi hunen irabaztala gero Azken partidari Atano txapelkunaren kontra ariko da. Nafartarrak Retegi erasundarraren baitan esperantza aundiak ditugu eta nork daki zer gertatuko ote den. Hori geroak erranen eta bizkitartean zain egon gaitzen.

ANZANARRI

ERRIZ - ERRI

URDIAIN

URRIZTIKO IDOIA

Bi urte ditu Urrizti'ko istilluak. Urdiain'go gaztediaren asmo polita izan zan. Beroan asi eta beroan egin. Neke ta gastu aundiekin. Iñoren laguntzarik gabe; baño egin. Hori egiten duten gazteak ba dute kemen. Egingo dute beste zerbait beren denboran.


Makurrena egin zan orduan. Baño etxeak eta soroak urtero berritu behar dira zerbait eman nahi ba dute. Au da neguko gure lana: nekazariaren ereintza. Baztarrak garbitu, etxearen itajunak kendu, aurpegia txukundu eta lotsarik gabe jabe ateratzeko leran gauzak utzi.

Gero ta gehiago dira udan heldu zaizkigunak. Bazter guzatan entzuna da Urdiain'go gazteen lana; ez leku ederra delako, ez eta ere piscina aundia delata; eginga den bezala eginga bai da...

Eta nork daki emendik urte gutxiaren barruan, urtero lan pixka bat eginez, zer bihurtu laiken beko basua? Asiak dira batzuk eta beste lurra eskatzen. Etxe txiki eta udalaku egokia izan laike. Gure esku dago.

Batez ere, atzetik heldu diren aurrerri bidea idekitzen die Txikitatik ikusia dute elkarrekin lan eginez zenbatera iutsi laiken. Bakoitzak bere alde jokatu, berriz, ezer ez.

Karguten egotea danen mutil izatea da, eta danei komeni zaie behin



edo beste kargutan sartzea, jakiteko zer den.

Elgarren iritziak entzutea jakinturi aundia da. Begi askok, batek baño gehiago ikusten dute.

Bakoitzak bere ustea baztatu eta gehienak nahi dutena segitzea, mingarri ez baño aberasgarri izaten da. Eta azkenean poza ematen du: famili aundi baten barne delako poza.


Gauzak ongi ateratzen diren garaien ez arrotu eta puztu. Eta txarki dabilzanean ez kokildu eta lur jo. Bakarrak geranean gerta laike

hori: asko balin begera ez.

Aurtengo neguan zer edo zer egin nahi ba degu, auxe da garaia. Ereiten ez duenak ez du biltzen. Uda murrizta izaten da, gure gauzak lotsagarri agertzen ba ditugu munduaren aurrean.

Danon lana danok egin behar dugu. Gutxiendako asko da; eta danonendako ezer ez.

Txukundu ditzagun baztarrak. Etxe bati itapuniak kentzea bezala da. Gurea guretako izango da gero ere.



LESAKA



AKELARRE

«Akelarre» deitzen diogu, gure errian, dana oker dan gauz aeri. Edo, dana oker egiten dituzten aieri. Erderaz: «calamidad». Zuek, noski, alkaitz edo olako itzen bat erabiliko dezute. Ori berdintxo da. Ala edo onela, esan naia adierazi ezker, esateko era edo moduak ezdute ajol aundirik. Zuzenago adierazi ezker, obe, ori bai. «Akelarre» itz au ez dakit zuzena ote dan. Baño, zuen baimenez, au erabiliko det gaur.

Ta erabiliko det aurtengo udaberri asiera oneri buruz. Uda-berrien sortutze akelarre bat bizitzen ari bai gera.

Jorraitak amalau dauzka gaur. Eurria jetsi ala ari du. Goibelak (odeiak, leku askotan), eskuakin artzeko antzan. Bi egun politik euki ditugu. Bañan, ainbeste ta ainbeste euri ari du azken ontan! Bideak, belarsoroak..., dana uraz aseta daudez. Akelarre!

«Polita da uda-berria, maitale guzti zeru urdiña bezala», dio batek. Bañan, maitale oien zeru urdiña illuntzen danean, baten edo besteen erruz, aii polita ala, ordu artan, aien gañeko zerua? Antz; uda-berria ta uda-berrien izena polita da, lorez ta margolez bete. Eurriak, otzak ta egun illunak zapaltzen badigute bizi berri onen sortutzea, aii alaigarri geatuzten ote uda-berrien izen au? Akelarre!

Ezda erraz gauzak egitea. Ezda erraz, erraza ezdalako bizia. Ez di-

tugulako erraz azaldutzen gauzak. Ezda erraz maitaleen arteko alkar alaitzea. Ezda erraz senideen arteko alkar ondo erabiltzea. Ezda erraz, ez. Ez ditugulako erraz azaldutzen gauzak.

Gaizto, munduko buru izan nai duten aientzako. Gaizto, eben esku-bide ta azkatasuna eskuratu naiez dabilzan aientzako. Gaizto, pake ta osasunean bizi bearrez lanean ari diran aientzako. Gaizto. Akelarre!

Ta au ikusi ta sinesturik, ezda alako makurtasunik guk nai ezditugun egualdiak egin arren. Gaur onela, biar beste egun izan leike. Odai, goibelak asarratu dirala ta gu ikaratuak. Ez balitzake beste gaitzerik munduan, ezgaude gaizki; ezda zalla bizia.

Baño begira zure inguruan. Begira nora goazen gizonak. Illargira? Bai baño emengo akelarreak gere ondotik urrutitu naiez. Beste mundu berri baten billa. Ta ez. Ezdaukagu beste mundurik eskuratuko, or, goi ortan. Bizi berri baten billa bagabiltza. Ta bizi berri ori, emen, bertan sortu bearko degu. Ta ortarako, zenbat gauz ezdira gertatu bear! Gelegi.

Uda-berria. Eurria ta otza. Uda-berria. Gerra, gosea ta alkar ikusi-ezin amorratua. Au ote uda-berri onek ekarri nai digun bizitasuna?

Itxaropena. Bizi ta mundu berri baten itxaropena. Egiako uda-berri baten itxaropena. Bitartean, Akelarre!

ANTTON



SALDIAS

EGUALDI KAXKARRAK

Gure nekazari maitak estu eta larri ikusten ditugu. Lanerako egoaldiak batere ez laguntzen. Egun bat ateria egiten baldin badu, urren zortzialdiak euri xir-xir botzen ez gelditzen. Oraindik ia alor denak osorik daude. Badira patata pixken bat erein dutenak; Ontaz gañiera otz egiten du eta soroetako belar ezdira batere azitzen. Igazkoak akixiak, eta berririk ez ateraten. Orrengatik beste urte batzuetan gaizkiago badabilz gure nekazariak. Ia laixter egoaldi onak asitzen ote dituen, gure nekazari kementsuari begia argitzeko.

OBRA BERRIAK

Arretxeokak beitokia moldazten ari dira. Labain'go argiñak ari dituzten lana egiteko. Oso ongi ikusten dugu gendearen baitan sortzen ari den txukuntasunerako gogoia. Denei zorionak.

BESTE ALDEKO OTSAK

Beste ots batzuek badira: Laster erriko agintari nagusia aldatu behar dutela edo. Izan behar duenari aurretik zorionak ematen dizkiogu.



BAZTAN

FERIAK

Aurtengo Apirileko feriak goan ziren bainan egia erran aurtengo hauek erras funtsik gabekoak izan dire. Batzuetan xirtoa dela, bertzetan mainguerie eta bertzetan holako edo halako gaitz kutsakorren bat delakotz, beti ere aspaldi huntan Elizondo'ko plazan ezta merkaturik izaten debekatua baitago. Aurtengo ferietan hori bera gertatu da eta bei, zerri eta ardirik ez dituzte merkaturiko plazara agertu eta aurtun beor ta zaldi bakar batzuk bertzerik ez omen ziren. Halare ferien izen horrek yendea mugiarazten du eta atxiki horrekin yende multxo bat bildu zen Elizondon eta bazen ferien señalear. Nekazaria kexu dago eta badu arrankure, beti bada zerbait beti trabak eta azienden eritasun txar hoiak beñere ez suntsitzen. Non daude oraiko aurrerapenak mainguerie eta gañerako gaitzak betikotz garbitzeko? Beti ere holako gauzak kalte ta gibelapen

LUKAS HIL DA

Apirillaren amalauan itzali da Urdiain-en Lukas Zufiaurre, euskaldun jator eta gizon argia. Laurogei ta zortzi urte ilbeltzean beteak zituen. Euskal-herriak agoz ego gureganaino ekarritako jakintzaren iturri aberatsa iduri zuen. Orain baño lehen bere izena horri auetan emana da.

Oihanean ozpingarriak jo duen aritz zaharra bezala arapatu nuen atsalde batez sukaldean. Aurtengo martxoaren 27 zen. Xutik, su bazter lanetan zebillen; emakume gabeko etxean bakoitzak berak egin behar jatekoak. Aurpegi erdia gogortzen asia; itza, Lukasen itz leguna, nekez ateratzen; kasik ezin garbitu... moxkorra iduri. Buruko odol kolpez ikutua zen.

—Zer duzu, Lukas?

—Eztakit, esan zidan. Besterik ez nion ulertu. Mihian traba aundia zuela esan nahi ote zuen!

—Buruko minik izan al duzu?

—Ez, ez... ez.

—Pisutasunik?

—Hori bai.

Egun hortan bere ankap sartu zen ohean; baño orduan asi zen Lukasen ilun nabarra. Biramonean etzen jaikitzeo gauza; bere eskubiko besoa egurra bezala zegon: gorputz erdiko perlesia zuen. Eta burua argi, bestalde; guazak esan nahi eta ezin adierazi. Hori izan da Lukasen gurutze aundia.

Zortzi amar egun aurretik eginak zituen pazkoak. Eta alaiki, bera zen bezala egin ere. Egun batzuk neketan egin ondoan, jorraitaren amalauan itzali zen. Goian bego.

Udaberriko lehen hosto eta lorez adertzen asiak ziren baztarrak. Jakin ta bezala esana zidan negu ontan: «Negu ona daramat; baño hosto berriari ojo!» Izan ere esaera ba da, hosto ateratzea eta errotzea izaten dela zaharrendako txarrena. Lukasendako hala izan da.

Eder da laurogeita zortzi urte eta hiru ilabetekin Lukasen buru argia. Alai bizi zen, iñori faltatu gabe esaera politik zituen beti agoan. Udaberriko txori bat bezala izan da, neke guziekin, bere bizian; eta udaberriak du ereman. Negu gabeko bizi luzea. Lukas.

Eta gizon auetako bat hiltzean mundu bat dijoa berekin. Aldaketa aundiak ari dira gertatzen gaur; batzutan onetan eta beste batzutan kaltetan. Lukasen esaera zuhur eta jakinduriz beteak etziren bereak. Askotan galdetzen nion nik: «nundik duzu hori!» Eta beti erantzun bera: «Eztakit ba!! Zaharrei entzuten nien». Auskolo noizko jakintza izaten da eta liburu askok bete ezin duten zuloa uzten dute herritan.

Jainkoari esker, sardinak oliotan sartu ta gordetzen diran bezala itza ere gordetzeko bidea ba dugu gaur; eta Lukasen mintzoa urte askoz entzuten ahalko da. Lukas joan da; baño Lukasen barne argia, bere ixinplu jatorrak bizi dira. Behin baño gehiagotan itzuli beharko dugu zer esaten duten aditzera.

Beste mundutik ere barre gozo hura bialduko digu; eta behin edo beste seriyo jartzeko bidea ere izango du euskaldun kazkarren joera ikusita. Ez ote du zerbait egingo! Bada ez bada, eskatu egingo diot. Lukas, gero arte.

SAGI

aundiak dakartzkite eta gisa hortan eztago aurreratzerik.

Lur-sagarra, erremolatxa eta bertze erizioak ere arras gibelatuak daude, Martxoko ilabetea txarra gan zen eta Apirilekoa berriz txaragoa izan da, beti eurie, otza eta giro txarra, yendea beti kezketan lanak ezin eginez eta gisa hortan denbora aintzinat doae deusere egin gabe. Gauzak moldatuko al dira datorren ilabetean? Agian bai.

Aurtengo bildotsak prezio polita egin dute eta beti bezala gora-bera aundiak, batzuetan kario eta bertzetan merkeago betiko arrankurekin. Mayatzeko ilabetearen baitan yendeak badu esperantza, ikusiko dugu zer kanpo-giro izaten dugun.

ELIZ-BESTA

Apirileko 13'an Elizondoko herrian eliz besta eder bat izan dugu. Orain berriki elizeko aldarea eta bertze gauz aunitz ere berritu dituzte eta barna guzia dena ongi apaindurik behar diren aurrerapenekin ederki antolatua utzi dute. Eliza garbi eta argi dago Yaungoikoaren Etxeak mezezi duen bezala.

Iruñe'ko kardinal Arturo Tabera Araoz Yaun Agurgarria izan zitzaikun aldareko Maia eta gañerakoak bedeinkatzera. Kardinalari arrera on bat egin zitzaion Elizaren Agintariari dagokion bezala eta elizan sar-



—Zer duzu, Lukas?

—Eztakit, esan zidan. Besterik ez nion ulertu. Mihian traba aundia zuela esan nahi ote zuen!

—Buruko minik izan al duzu?

—Ez, ez... ez.

—Pisutasunik?

—Hori bai.

Egun hortan bere ankap sartu zen ohean; baño orduan asi zen Lukasen ilun nabarra. Biramonean etzen jaikitzeo gauza; bere eskubiko besoa egurra bezala zegon: gorputz erdiko perlesia zuen. Eta burua argi, bestalde; guazak esan nahi eta ezin adierazi. Hori izan da Lukasen gurutze aundia.

Zortzi amar egun aurretik eginak zituen pazkoak. Eta alaiki, bera zen bezala egin ere. Egun batzuk neketan egin ondoan, jorraitaren amalauan itzali zen. Goian bego.

Udaberriko lehen hosto eta lorez adertzen asiak ziren baztarrak. Jakin ta bezala esana zidan negu ontan: «Negu ona daramat; baño hosto berriari ojo!» Izan ere esaera ba da, hosto ateratzea eta errotzea izaten dela zaharrendako txarrena. Lukasendako hala izan da.

Eder da laurogeita zortzi urte eta hiru ilabetekin Lukasen buru argia. Alai bizi zen, iñori faltatu gabe esaera politik zituen beti agoan. Udaberriko txori bat bezala izan da, neke guziekin, bere bizian; eta udaberriak du ereman. Negu gabeko bizi luzea. Lukas.

Eta gizon auetako bat hiltzean mundu bat dijoa berekin. Aldaketa aundiak ari dira gertatzen gaur; batzutan onetan eta beste batzutan kaltetan. Lukasen esaera zuhur eta jakinduriz beteak etziren bereak. Askotan galdetzen nion nik: «nundik duzu hori!» Eta beti erantzun bera: «Eztakit ba!! Zaharrei entzuten nien». Auskolo noizko jakintza izaten da eta liburu askok bete ezin duten zuloa uzten dute herritan.

Jainkoari esker, sardinak oliotan sartu ta gordetzen diran bezala itza ere gordetzeko bidea ba dugu gaur; eta Lukasen mintzoa urte askoz entzuten ahalko da. Lukas joan da; baño Lukasen barne argia, bere ixinplu jatorrak bizi dira. Behin baño gehiagotan itzuli beharko dugu zer esaten duten aditzera.

Beste mundutik ere barre gozo hura bialduko digu; eta behin edo beste seriyo jartzeko bidea ere izango du euskaldun kazkarren joera ikusita. Ez ote du zerbait egingo! Bada ez bada, eskatu egingo diot. Lukas, gero arte.

SAGI

tzean eta bere ohoretan Elizondo'ko kantari-taldeak «Tu es Petrus» kantatu zuten. Gero bedeikazioak eta Meza Elkartua aldarean amabortz apezekin Elizondo'ko semeak gehienak eta Yaun kardinala buru zutenarik. Mezaren erdian Yaun Kardinal Agurgarriak itzaldi hungigarri bat egin zuen eta denen pozgarriko eskuarazko itzalditxo labur bat ere egin zigun. Bera Kastillakoa izanagatik bere amaren aldetik badu euskaldun odola bere arbasoak Euskal-herrikoak baiziren, hortaz bada eskuarazko itzak biotzetik atera zitzaizkion eta hori guretzat ohore aundia izan da. Elizkizun huntan bortz aur batayatu zituen, bortz kristau berri Kardinal jaunaren eskue-tatik Batayoko Sakramentu Saindua hartu dutenak.

Meza ondoren eta Kardinal Agurgarriaren ohoretan Elizondoko gizon gazteek Mutil-dantza dantzatu zuten eta bai Iruriteko neskatx gazteak ere beren eskual-dantza politik erakutsi zituzten. Egun gogoangarria izan da elizondarrentzat, eliza bete bete beñere ez bezala eta elizkizuna ere guziz ederra. Har ditzatela gure goresmen bizienak, erretore jaunak, elizkizunaren gidariak eta bertze gañerako apez agurgarriek ere. Zorionak deneri.

M. IZETA

FONTES LINGVAE VASCONUM

TXIRRINDULARIAK

FONTES
LINGVAE VASCONUM
studia et
documenta

Don Jose Esteban Uranga, «PRINCIPE DE VIANA» deritzaion Naparru Diputazioko kultura organismoaren lendakari jaunak bidalita daukat Fontes Linguae Vasconum studia et documenta errebistaren lenengo lumeroa.

Arrigarrizko errebista. Bere latinizko titulua onela aldatu genuke: izkuntza iturriaren estudio ta dokumentuak.

Euskera buruz orain arte agertutako errebistetan goi-goieneko mallan jarri bearreko errebista.

Naparrak errepika bizia jotzen diote euskerari oraingo ontan. Eskerrikasko biotzez naparrari. Lan jatorra benetan. ¿Nork neurtu lezake errebista onen garrantzia?

¿Noraño iritxi leike Fontes Linguae Vasconum? Asierak gauza aundiak agintzen ditu.

Jakintsu errebista. Mundu guziko Unibersidadetan izkuntz-jakintsuak egarri biziz aztertuko duten errebista.

Baño gure artean ere, denak goimalleko jakintsuak ez izanarren, izkuntza zale asko ta asko ditugu.

Euskaldun guziak gure izkuntza

maite baldin ba degu beintzat, denak gera linguistik, izkuntza-zaleak. Ortara dijoazte gure afizioak.

Jakintsuentzat ezik, oentzat ere errebista benetan bikaiña, Naparruko «PRINCIPE DE VIANA»-k atera berria.

Eskerrak Urmeneta jaunari, errebistaren atarian eskribitu dituan itz biotzkorrengatik.

Eskerrak Mitxelena jakintsu ospetsuari, Iratxe-ko dokumentu zarrenetan ainbeste ta ainbeste euskera kutsu aztertu ta azaldu ditalako. Naparru Erreinu dokumentu zaar artian ez bait da posible ibiltzerik euskera jakin gabe. Euskerak argi berezia egiten diete dokumentu oieri.

Eskerrak baita ere Caro Baroja eta Garcia Bellidori. Biak jakintsu benetan aipagarriak.

Batak, Caro Baroja-k, Naparruko Fueroetan euskeraren aztarrenak biltzen saiatu da. Bestea berriz, Garcia Bellillo, Erromatarren gudari taldeetan ziran euskaldunen berriak ematen dizkigu. Eta ez gañera nola naioak. ¿Noraño iritxi ziran Erromatarrekin batean euskaldunak?

Eskerrak aizkenik «PRINCIPE DE VIANA»-ko lendakari jaun eta laguntzaile guzietan. Gure Naparro maitean giro berri baten berebiziko agerkaia degu oraingo errebista berria.

Euskal kondaira dokumentu zarrenak euskeraren argi garbiakin astertzen asiak ditugu naparrak.

Berriz ere esango det: Alde guzietatik begiratzen zaiola ¿nork neurtu lezake onen garrantzia?

Urmeneta jaunak errebistaren itzaurrean dion bezela. Oraindik ere, Iruñeko atean gizon zaarrak ogiari ogia eta ardoari ardoa deitzen diotela.

Zabal bedi Fontes Linguae Vasconum mundu guziko Unibersidadetan, bañan zabaldu dedilla baita ere gure arteko ikastunetan ere.

JOSE ARTETXE

(«Zeruko Argia» euskal errebistatik artua).

Aspaldiko urte hauetan egiten etzen bizikleta lasterketa, aruten egin digute. «Euskalerrari Itzulia» deitzen zen lasterketak lenagoko denboretan arraketa aundia izaten zuen gero utzi zuten egiteaz eta orai 34 urten buruan berriz piztuarazi dute eta aurtengoarekin bederatzigarrena da, lenago zortzi aldiz baizituzten eginak. Oraingoan lasterketa horrek Eibar'tik zuen asiera eta bortz zati edo etapa izan ditu, hoiiek gisa hontan berexiak.

Lendabizikoa. Eibar-Bitoria. 144 kilometro.

Bigarren. Bitoria-Iruña. 203 kilometro.

Iruigarrena. Iruña-Donostia. 166 kilometro.

Laugarrena. Donostia-Gernika. 118 kilometro. (Lenbiziko zatia).

Laugarrena. Gernika-Bilbao. 43 kilometro. (Bigarren zatia bakarka).

Bortzgarrena. Bilbao-Eibar. 171 kilometro.

Egia erran oraingo lasterketa hontan ez diote Euskalerrari osoari itzulia eman, ez baitira mugaz bertaldekoko lurraldean sartu, hortaz bada Eskual-Herriko bizikleta lasterketa hori murrizt gelditu da. Lau ekipa ari izanak dira, bi españar eta bi frantzitar, BIC eta MERCIER frantsek eta KAS eta FAGOR españolak, denen artean 39 lasterkari. Etapen irabaztaleak hemen:

Lendabizikoa. WRIGHT, ingelesa.

Bigarren. GALERA, españarra.


Iruigarrena. OKAÑA, españarra.

Laugarrena. Lenbiziko zatia. RIOTTE, frantzitarra.

Laugarrena. Bigarren zatia. POULIDOR, frantzitarra.

Bortzgarrena. PERURENA, españarra.

Euskalerriko bederatzigarren Itzuliaren irabaztalea. ANQUETIL. Frantzitarra.



Bigarren. GABIKA. Españarra.

Iruigarren. M. DIAZ. Españarra.

Laugarren. SAN MIGUEL. Españarra.

Bortzgarren. CASTELLO. Españarra.

Seigarren. OKAÑA. Españarra.

Zazpigarren. POULIDOR. Frantzeza.

Zortzigarren. GALERA. Españarra. Bederatzigarren. PERURENA. Españarra.

Amargarren. BELEZ. Españarra.

Hoiien ondotik bertze gañerako txirrindulariak 36 taraño.

Ekipetako Sari aundia. Lenbizikoa. FAGOR.

Bigarren. KAS.

Iruigarren. BIC.

Laugarren. MERCIER.

Lasterketa ederra izan da eta españolen ekiñaldia ere guziz aipagarria, amar lenbizikoetan zortzi gizon sartu baitituzte. Denek badakigu An-

quetil irabaztalea bizikletari ona dela eta oraindik ere bere 35 urterekin munduko hoberenetakoa dela. Gabika euskaldunak ere karrera ona egin du, bigarren gelditzea ezpaita nolanaiko gauza. Zorionak.

M. I.



NAFARROAKO AUR EUSKALDUNEN JOSTETAK

ASTO-ASTOKA

Bi mutiko besoekin elkar lepotik eldu ta jartzen dira. Iruigarrena, markurturik leengo bien artean burua sartu ta, lotua gelditzen da. Laugarrena irugarrenaren gainean jarri ta, lasterka abiatzen dira. Honen irudia da, josteka baiño ikuskaria edo kuadroa izenda ditaken, Artoletan deitu au. Bi mutikok bere esku eta eskumutarrak gurutzaturik exerleku (ialeku) bat egiten dute, eta antxe irugarren mutiko bat jarri eta batetik bestera daramate.

KASKARABIL IOKOA

Mutikoen joko au Baztan-goa da, eta iru eraetara jostatzen da.

1) **Tira-aala tira.**—Kaskarabil bat (Aritzaren adasketan azitzen dan biribiltxo) orma baten kontra jaurtitzen (botatzen) da gogorki. Ondoren, banaka-banaka gaiñerako mutikoak gauza bera egiten dute, eta norbaitek bere kaskarabil-arekin besteren batena ukitzen badu, lurrean dauden danak beretzat gelditzen dira.

2) **Zulora.**—Leenik zulo bat egiten da lurrean. Mutiko bakoitzak bere kaskarabilla ormanen kontra jaurtitzen (botatzen) duenean, zulora sartzen saiatuko da. Ori lortzen duenak irabaziko du joko.

3) **Kaniketan.**—Joko ontan, zimentozko kanika arruntak erabiltzen dira. Triangulo bat lurrean marratu eta, mutiko bakoitzak bere kanika lerro batean ipintzen du, leen, bigarren, hirugarren, laugarren... esan ondoren.

Leenbizikoak iru edo lau metro urrunetik jaurtitzen (botatzen) bere kanika triangeluon daudenak jostera edo aietatik urbil jartzeko (gelditzeko).

Alaxe berean egingo dute gaiñerako mutikoak kanikak jartzeko (paratzeke izan zuten) ordena berean. Botzerakoan (botatzerakoan) norbaitek kanika-ren bat ikuitu eta marrratik kanpora ateratzen ba du, beretzat izango da kanika ura.

ñork ez badu kanika-rik ikuitzen, triangulotik urbillena jarri duena asten da jokatzen, bere kanika beatz lodiarekin eldu ta, ustaierara jaurtiko (botako) du.

Triangulo kanika-ren bat ikutu ta marrratik ateratzen ba du, arentzat izango da kanika ori; berdin bi kanika ikutu ta marrratik ateratzen baditu ere. Eta ortan jarraituko du uts egin arte.

Bere ondoren, urbillena gelditu dana asiko da: eta gero gainerakoak, kanika danak atera arte. Orduan, berriro joko asiko dute.

A. A. ETXEBARNE

¡ILL EDO BIZI...!

EUSKERA MINTZATUAREN AZKEN ATSAK!! (III)

EUSKERAREN ETORKIZUNA GURE BAITAN DAGO

KATALANA ETA EUSKERA

Euskeraren etorkizuna, esan dezagun bein da berriz, ez dago ez Paris' en ez eta ere Madrill'en.

GU BAITAN dago, eta gu baitan bakarrik.

Guk nai badegu, eragozpen guzien gainetik, salbatuko da, biziko da. Mundu zabalari beste mintzaira aunitz bizi diran eran, erbesteko inoren laguntzarik gabe, erri bakoitzak ematen dion berotasunarekin.

IKUS DEZAGUN KATALANA

Guk ezagutu ditugun eragozpen den-denak ezagutu ditu, bat gutxigorik gabe: agintarien zigorkadak... gertaren atsekabeak. Ez du erbesteko laguntzarik, ez eskatu eta ez izan.

Alaz ta guzti, gaur bere izkuntza mintzatzen ez duan katalan bat ez da, BAT BAKARRIK ere ez.

Aberats eta pobre... zar eta gazte... gizon eta emakume. Mintzatzen dute kalia eta etxian... edozein motako lantegietan eta lagunartian...

Katalana da EUREN BIZITZAKO mintzoa.

IKUS DEZAGUN EUSKERA

Benetan trixtia gure euskeraren egoitza. Bi itzetan esan genezake dala BERE ERRIAN... ARROTZ. Penagarri da, baño ala da.

Bilbo'n edo Donosti'n, —Iruña'n eta Gazteiz'en, edo Miarriz eta Bayona'n zer esanik ez—, Bilbo'n edo Donosti'n, kalia aurkitzen degun ez-egun bateri euskeraz galdera bat egitera... lotsatzen gera.

Denda batian lenengo galdera euskeraz zuzentzia... ahalge zaigu.

Etxeko atera norbeit azaltzen darian euskeraz agurtzera... ez gera auzartzen. Telefonuak etxian jotzen duanian, ez degu nor den euskeraz... galdetuko.

Geiago oraindik.

Euskalzaundiak bere zabalkundia ¡¡ERDERAZ!! egiten digu. Euskaldun zintzo eta jator dan San Martin jaunak, oraindaño beti, atsegiñik aundienarekin, beti euskeraz irakurri izan diogun adixkideak, Donostiko egunkari batian bi artikulua agertu dizkigu ¡¡ERDERAZ!! Euskalzaundiaren lan eta asmuak azalduaz.

Berrogeita amar urteren buruan, ¡¡erderaz!! argitaratzen gaitu Euskalzaundiak.

Agertu ditugun gertakizun oiek denak, ez al dute euskeraren dekadentzi edo beerakada ikaragarri bat azaltzen...?

¡Ay Unamuno... Unamuno! Zenbat gizatxarkeri ez dituzte esan zuregaitik...! Eta... nola beldurtzen naizen zutaz oroituaz!!

Bai, euskeraren egoitza trixtia: BERE ERRIAN... ARROTZ!!

KOXKORKERIAK...

Norbeitak esan lezake, guk agertu ditugun gertakizun oiek koxkorkeria dirala.

Ez gera iritzi ortako. Guretzat gertakizun oiek, euskera mintzatuak sufrizten duan gaitzaren ezaugarri edo sintoma beldurgarrienetakuak dira.

KONPARAZIO BAT

Gizon bateri mingaiñ ertzean urratu edo lllaga txiki bat agertzen zaio, kokotz azpiko aunditsu zonbeitekin batian.

Gizonak berdin jaten eta edaten du... berdin lan eta libertitzen da. Itxuraz deusik ez da.

Baño itxuraz deus guti iduri duten sintoma oiek, laixter illobira eramango duan minbizi ikaragarri baten siñaliak dira.

¡Beldur izan euskerarekin gauz bera ez dediñ gerta...!

Guk aipatu euskeraren siñale oiek... itxuraz deus ez dira.

Baño beldur izan euskera leiza zulora dijuala agertzen duten lehen siñalerik oberenak ez ote diran.

Ez dugu uste lasakeria bakarrik denik: beste gauz okerragoko baten beldurra dugu.

Ez kalia eta ez dendan, ainbat gutxiago etxian, euskeraz egitia ez digute galeratzen ez Paris'ek eta ez Madrill'ek.

ZERGATIK EZ DUGU BADA EGITEN...? BAI, ZERGATIK EZ...?

— ★ —

JAKINTSU ZONBEITEN IRITZIA
IZKUNTZEN ETORKIZUNAZ

Gaurko gure lan onen bukaerako jakintsu zonbeiten iritzia agertuko degu izkuntzak izaten duten etorkizunaz.

Ona lenen Marcelino MENENDEZ PELAYO'RENA.

«...Las lenguas, signo distintivo de la raza, no se forjan caprichosamente, ni se imponen por la fuerza, ni se prohíben ni se mandan por la ley, ni se dejan ni se toman a voluntad, puesto que nada hay más inviolable ni más santo en la conciencia humana que el nexux secreto en que viven la palabra y el sentimiento».

Menendez Pelayo'ren itz oiek ez dute komentario bearrik; berez eta argi eta garbi itzegiten dute.

Toulouse'ko Unibersidadean irakasle dan Seguy jauna «Le Monde» Paris'eko egunkarian idatzi zuan: «...Izkuntza baten bizia eta eriotza ezin genezake kontrolatu. Zigortu genezake, baño bizi bear badu... biziko da. Jendeak ordaindu genezake ikas dezaten: ill bear badu... ilko da».

Itz oiek ere garbi daude.

Gauz bera, gutxi gora-bera, esaten zuan L. Mitxelenak, aita Villasante'kin «Aranzazu» aldizkarian ¡¡ERDERAZ!! egindako elkarrizketa batian: «...si la planta no vive y crece por sí misma, en vano se la regará».

Mexiko'ko aldizkari batian irakurtzen genduz: ...Creemos que en pocos casos como el nuestro, las siguientes autorizadas palabras de Karl Wosler cobran acentos de una más tremenda verdad:

«...Una palabra, una fortuna lingüística fenecen sólo porque el interés espiritual del hablante se aparta de ellas, no porque otras palabras hermanas u otras lenguas enemigas las derriben en tierra, ni porque las aprietan en un rincón del mapa lingüístico».

Jakintsu guzti oien iritzi, beraz, euskeraren salbazia EUSKALERRIAN dago, gu baitan.

Jainkuak naiko al du, guretako bakoitzak, iritzi ori ulertu dezan...!!!

DR. HERNANDORENA